

## **ESKU BALOIA – ARAUDIA.-2017-2018**

**1.- ZELAIKO JOKALARIAK:** Gehienez: 5  
Gutxienez: 3.

**2.- JOKALARIEN TXANDAKATZEA ETA ALDAKETA:** Lehen hiru denboretan, jokalaria guztiek gutxienez denbora bat eta gehienez bi denbora jokatuko dituzte.

4. zatian aldaketak libreak dira.

Aldaketak atsedenaldietan edo 4. zatian.

**3.- PARTIDEN IRAUPENA:** 10 minutuko 4 zati.

**4.- FALTAK:** Joko arriskutsua aurkariaren aurrean. Ezin da ez heldu eta ez bultza. Beraz, Aurrenengo aldiz, horrelako faltagatik, epaileak jokalariai kargu hartuko dio. Berrito horrelako falta bat egingo balu, 2 minutuko zigorra jasoko luke.

**5.- ATEZAINA:** Atezaina txandatzea nahitaezkoa da. Beraz, zati bakoitzean atezain desberdin batek jokatuko du.

**6.- Gola sartu ondoren,** atezainak atetik sakea egiteko, kontrario guztiek erdi kanpoan egon behar dute.

**9.- Emaitza:** 1. eta 2. zatiak, lehenengo denbora bezala hartzen da, eta 3. eta 4. zatiak, bigarrenengo denbora bezala. Denbora bakoitza partida bat bailitza hartzen da, eta talde bakoitzak sartzen duen gol kopuruaren arabera erabakitzen da. Denbora bakoitzeko irabazleari puntu bat ematen zaio. Bi taldeen artean gol berdinketa gertatzen bada, denbora horren balioa 0 izango da. Horrenbestez, partidaren azken emaitza 0-0, 1-0, 1-1 edo 2-0 bakarrik izan daiteke, eta ez da kontuan hartuko partida osoan guztira sartu edo jaso diren golen kopurua.